

Eskubide sozialak: sarrera

Deustuko Unibertsitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren prestakuntza-saio baterako testua¹

2014/06/18

Fernando Fantova
aholkulari soziala

Giza premiak eta giza eskubideak

Pertsonon premiak ezinbesteko abiapuntu dira ongizate-politikak eta eskubide sozialak eratzeko orduan. Zer dira premiak? “Ez litzateke zentzuzkoa izango falta dugun hura baino ez dugula behar esatea (...), gabezia premiaren adierazle posibleetako bat baino ez da”² (Añon eta García Añon, 2004: 95). Esan dezakegu “premiak mendekotasun-egoerak direla edo, bestela esanda, gizakiak munduarekin duen mendekotasun-harremanaren adierazpenak” (Añon eta García Añon: 2004: 96). Oinarrizko edo funtsezko premiak baldintza komun eta unibertsalak izan beharko lirateke edozeinek izan lezakeen zeinahi bizi-proiektutarako. “Oinarrizko premiek agerian uzten dute gizaki ororena dena: gure zaugarritasuna. Oinarrizko premiak, eragiletza-gaitasunaren baldintza diren aldetik eta kaltearen kontzeptuari lotuta dauden heinean, saihestu ezinak ere badira (...), eta denbora-tarte jakin batean (...) premia bat ase gabe edukiz gero, pertsona batek kalte konponezin bat jasango du (Añon eta García Añon, 2004: 105).

Bereizi egin behar ditugu “premia unibertsalak eta erlatibitate kulturalaren asetzailak” (Doyal eta Gough, 1994: 29). Bereizi egin behar dira, halaber, premiak –modu intersubjektibo eta informatuan premiak unibertsal gisa identifikatzen eta aitortzen saiatzen garen horiek– eta pertsonen itxaropen, nahi

¹ Moldatua, Fantova, 2008, 3. kapitulua.

² Manfred Max-Neef-ek, *giza eskalaren garapenari* buruz egiten duen planteamenduan, giza premien dimentsio bikoitza aipatzen du: gabeziarena eta potentzialitatearena (Max-Neef, 1998).

eta eskaerak. Horrek ez du esan nahi, hala ere, erraza denik premiak eta asetzailleak bereiztea, ez eta giza premiak estatikoak eta aldaezinak direnik ere, eta gure ustez zilegi da esatea premiak eraiki egiten direla era dinamiko batean, bai gizaki bai gizarte mailan.

Pertsonen premiei buruz jarduteko lengoaia landuena eta unibertsalki onartuta dagoena giza eskubideen lengoaia da (humanitatearen *lengoaia komuna*, Boutros Boutros Ghali-ren hitzetan). Egiazki, "giza eskubideak badira, izan, oinarrizko premiak asetzen dituztelako" (Añon eta García Añon, 2004: 94). "Giza eskubideen teoria batek gutxienez alderdi hauek azaldu behar ditu: 1) zer subjekturi dagozkion eskubideak; 2) subjektuaren zer ezaugarri direla-eta egozten zaizkion eskubide horiek; 3) subjektuaren eskubide omen diren objektuen, baliabideen edo prozesuen izaera; 4) zer banakok edo erakundek duten dena direlako eskubide horiek errespetatzeko, aplikatzeko edo asetzeko betebeharra" (Añon eta García Añon, 2004: 106).

Zehazki botere publikoei dagokienaz bezainbatean, eta Nazio Batuen esparruan zehaztutakoarekin bat etorritz, hiru betebeharrak mota ezartzen dira giza eskubideen arloan:

- a) "Errespetatzeko betebeharrak: estatuak ez esku hartzea banakoek jada gauzatuta dauzkaten ondasunetan (bizitza, osasuna, hezkuntza jasotzeko aukera).
- b) Babesteko betebeharrak: estatuak eragotzi egin behar du hirugarrenek eskubideak gauzatzeko oztopoak jartzea.
- c) Asetzeko betebeharrak (bermatzea eta sustatzea). Bi dira: Bermatzeko betebeharra: ondasun bat eman behar dute pertsonak ondasun hori beren kabuz ase ezin dutenean. Sustatzeko betebeharra: banakoek beren kabuz ondasunak edukitzeko edo kudeatzeko gaitasuna sustatu behar dute" (Añon eta García Añon, 2004: 155).

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak, giza eskubideen gainean duen ikuskera abiapuntu hartuta, ezaugarri hauek nabarmentzen ditu besteak beste:

- Ukiezintasuna. Giza eskubideek gizakiak berez daukan duintasuna dute oinarri, eta ezin dira erabilgarritasun-kalkuluaren mende jarri.
- Zatiezintasuna. Ezin da giza eskubideen artean hautaketa edo hierarkizaziorik egin, zenbaitetan eta bidegabeki egin ohi den bezala, eskubideak interdependentek baitira³.
- Unibertsaltasun inkulturatua. Eskubideak denentzat dira, haiek ulertu eta aplikatzeko orduan testuinguruaren araberrako aldagaiak egon daitezkeen arren (IDHPA, 2007:11-12).

Giza eskubideen multzoaren barruan, oro har onartuta dago badela azpimultzo bat; *eskubide sozialak*, hain zuzen. Horiek giza eskubideen *bigarren belaunaldia* deritzon multzoan sartuko lirateke, eta lehenengo belaunaldikoen ondorengoak dira (lehenengo belaunaldia eskubide zibil eta politikoen osatzen dute). Pisarellok dioen bezala, "*eskubide sozial* terminoa filosofia politiko eta juridikoaren eta zuzenbide konstituzionalaren arlokoa da". Nazioarteko zuzenbidean, berriz, ohikoagoa da *eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak* formula" (Pisarello, 2007: 11). Eskubide sozialen arloan, erreferentzia gisa Thomas Humphrey Marshall-en "Herritartasuna eta klase soziala" oinarri-artikulua aipatu ohi da, 1949an emandako konferentzia bat jasotzen duena. Marshallentzat, herritartasun soziala (hau da, eskubide sozialak izatea) hirugarren estadio moduko bat litzateke, aurreko biak hobetzen dituen (herritartasun zibila eta herritartasun politikoa).

³ Amartya Sen-ek giza garapenaren gainean egindako ekarpenetan, azpimarratzen da murrizak direla pertsonen dauzkaten baliabideetan soilik erreparatzen duten planteamenduak, eta pertsonen baliabide horiek beren ustez baliotsuak diren funtzionamendu bihurtzeko dauzkaten benetako aukerak, benetako askatasuna, benetako gaitasunak aztertu behar direla (Sen, 1992). *Bizi-kalitate* kontzeptuak, hain zuzen, banakoaren askatasunaren eta gizarte-ongizatearen arteko lotura hori islatu nahi du, azpimarratuz, baldintza objektiboekin batera, pertsonen bizipen subjektiboen garrantzia (Alguacil, 2003).

Erreferentziak giza eskubideetan eta eskubide sozialetan

Jakina, giza eskubideez hitz egiten dugunean, erreferentzia objektiboak dauzkagu, eta oinarritzkoena Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an onartua. Han espresuki aipatzen dira eskubide sozial zenbait, hala nola etxebizitzarekin, asistentzia medikoarekin, hezkuntzarekin eta kontingentzien aurrean bizirautea bermatzeko aseguruekin eta abarrekin lotutakoak. Mundu mailako esparrutik Europara igaroz, lehenik eta behin Europako Gutun Soziala gogoratu behar dugu, Europako Kontseiluak egindako oinarritzko testua, 1961eko urriaren 18an Turinen sinatua. Gaur egunera arte jauzi eginez, aipatu behar da 2007ko abenduaren 12an Europar Batasuneko buruek Oinarritzko Eskubideen Gutuna sinatu zutela Estrasburgon, Europar Batasuneko herritarren eskubide zibil, politiko eta sozialak barne hartzen dituen, zeinari Lisboako Itunak –27 estatu kideek 2007ko abenduaren 13an sinatu zuten– izaera juridiko loteslea ematen baitio Europar Batasun osoan, Polonian eta Erresuma Batuan izan ezik. Gutun horrek zenbait eskubide sozial jasotzen ditu, eta bereziki aipatu beharra daukagu 36. artikulua, “interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak” izateko eskubidea bermatzen duena. *Interes orokorreko zerbitzuei buruzko liburu zuriak* honela definitzen ditu interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak: “termino horrekin deitzen zaie Europar Batasunak, interes orokorreko irizpide bati jarraiki, zerbitzu publikoko betebeharrak espezifikoak ezartzen dizkien zerbitzu ekonomikoei” (CCE, 2004: 24).

Lisboako Itunak protokolo bat dauka “interes orokorreko zerbitzuei” buruz. Aurrekoan, hain zuzen, ez da termino hori aipatzen, eta Lisboako Itunean terminoaren adiera zabalagoa da, merkatu-diziplinaren mende dauden zein ez dauden zerbitzuak (hau da, ekonomikoak zein ez ekonomikoak) hartzen ditu, baina, betiere, autoritateek eman beharreko zerbitzu publikoko betebeharrak espezifikoaren mende daudenak. Testuinguru horretan, ulertuko litzateke eskubide sozialekin (hezkuntza, osasuna, zerbitzu sozialak...) lotutako jarduerak interes orokorreko zerbitzuen (ekonomikoen zein ez ekonomikoen) esparruan leudekeela; izan ere, bistakoa den arren merkatu-erregimenaren

barruan eman daitezkeela, antzekotasun handiagoa ikusten zaie autoritate publikoak gauzatzen dituztenekin ohiko merkatu-jarduerekin baino. Europar Batasunaren jurisprudentzia ildo horretan doa argi eta garbi.

Espainiako Konstituzioari dagokionez, esan behar da eskubide sozialak batez ere politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidari gisa jasotzen direla (I. titulua, hirugarren kapitulua). Kapitulu hori osasuna, etxebizitza... babesteari buruzkoa da. Konstituzioko 53.3 artikuluan, hau aipatzen da: “Hirugarren Kapitulan onarturik dauden printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, epaileen jarduerak eta herri-aginteen jarduerak kontuan hartu behar dituzte. Garatzen dituzten legeetan xedatzen denaren arabera baino ezin alega daitezke horiek ohiko epaileen aurrean”.

Eskubide sozialak eta haien prestazio-izaera eta izaera erlazionala

Gehien aipatu ohi den tasuna eskubide sozialak eta eskubide zibil eta politikoak bereizteko, lehenengoen prestazio-izaera da (Vicente Giménez, 2006: 85); hau da, eskubidea gauzatzeko, ezinbestean pertsonak baliabide edo zerbitzu bat erabili edo baliatu behar du. Eskubide zibil eta politikoen gauzatzea, aldiz, askatasun kontu bat bezala ulertzen da batez ere, eta pertsonak beste eragileengandik ez du prestazio bat espero (zentzu *positiboan*) baizik eta askatasun hori ez murriztea (zentzu *negatiboan*).

Paralelismo bat egin liteke, eta premia *sozial* deitu eskubide *sozialei* dagozkien haiei. Premia sozialei buruz hitz egiten dugunean, bide batez, ez da esan nahi premia horiek ez direnik banakoarenak, zeren eta azken batean, gure ustez, premiak dituenak (eta eskubideak) banakoa baino ez baita. Esan nahi duguna da, ziur asko, premia horiei eman beharreko erantzunean, modu bereziren batean, kolektibitateak, gizarteak, *zeresana* eta *zeregina* duela. Antzeko planteamendua egin da arrisku *sozial* deritzenak definitzeko.

Esan liteke giza eskubideen marko orokorrean erreferentziazko balio garrantzitsuenetako bat berdintasuna⁴ dela (aukera-berdintasuna, tratua eta emaitza-berdintasuna eta, horrenbestez, bereizkeria eza eta inklusioa). Balorazio-marko horren barruan, giza eskubide guztientzat komuna dena, giza eskubideek testuinguru sozial jakin batean elkarri ematen dizkiogun baliabide eta atentzioen existentzia azpimarratuko lukete, testuinguru sozial horretan (joeraz globala dena) bereziki babestu beharrekoak elkarrekiko harreman horren baitan, zeinaren bidez izaten, eraikitzen, kohesionatzen eta egituratzen baikara kolektibitate gisa, gizarte gisa.

Esan genezake hizpide ditugun eskubide sozial, premia sozial, arrisku sozial horiek korrelatu hauek dituztela gurea bezalako testuinguru batean eta gaur egungo egoeran: babes soziala, politika soziala edota ongizatearen (sozialaren) aldeko jarduna⁵. Politika sozialaz, ongizate sozialaz edo babes sozialaz hitz egiten dugunean, burura datozkigun jarduerak testuinguru sozial jakin batean, konbentzionalki, bereziki babestu beharrekotzat jotzen ditugu, eta kolektibitate bateko kideentzako baliotsutzat. Aurretik esan bezala: kolektibitateak, gizarteak, jarduera horietan *zeresana eta zeregina* dauka, hain zuzen. Gurea bezalako merkatu-gizarteetan, erabakitzen dugu, kolektiboki, hein batean bederen, premia eta jarduera horiek merkatuaren jardunbidearen esku ez uztea. Horregatik hitz egin behar dugu *desmerkantilizazioaz* (Esping-Andersen, 2007). Zenbait *pare* izango genituzke, beraz: alde batetik, premia sozialak edo ondasun babesgarriak, eta bestetik, horietako bakoitzarekin lotutako prestazioak (baliabideak edo zerbitzuak):

- Osasuna/osasungintza.
- Ikastea/hezkuntza.
- Interakzioa/zerbitzu sozialak.
- Enplegua/lan-politika.

⁴ Ekitateaz hitz egin ohi da, berdintasunaz haratago joanda, aniztasunari erantzuteko. Aniztasuna kontuan hartzen ez duen berdintasuna ez da nahikoa eta ez da bidezkoa.

⁵ Eta, sar genezake, baita ere, *gastu soziala*.

- Bizitokia/etxebizitza.
- Bizirautea/diru-sarreraren bermea.

Politika sozialaren ikuspegi eta analisi batzuetan, ondasun horien dimentsio *erlazionala* azpimarratzen da; hau da, ondasun horiek baliatzen dituen pertsonak koekoitzi ere egin behar dituela nolabait (Herrera, 98: 251). Ideia interesgarria da, zeren eta erreparatzen badiegu premia sozial izendatu ditugunei eta eskubide sozialei eta, orobat, politika sozialen bidez babestu beharreko ondasunei, ez da posible, oro har, pertsona batek haiek baliatzea haien ekoizpenean parte hartu gabe. Politika eta arreta sanitarioak babesten duten osasuna ezin da gauzatu, hobetu edo mantendu –ez eta hezkuntza-politikak eta hezkuntzako esku-hartzeak bultzatzen duten ikaskuntza ere– eskubidearen jabe den pertsonak ondasun horiek babesten parte hartzen ez badu. Eta beste hainbeste gertatzen gainerako ondasun guztiekin⁶...

Eskubide sozialen galdagarritasuna eta justiziabilitatea

Ongizate-politikek babestu beharreko ondasunei egozten diegun izaera erlazional hori kontuan hartuta, hala ere, geure buruari galdetu beharrean gaude zer aldetatik eta zer neurritan diren galdagarriak eskubide sozialak. Horretarako, jakin beharko genuke zer aldetatik eta zer neurritan har daitezkeen eskubide sozialak *eskubide subjektibo* gisa (eskubide subjektibotzat hartuta epaitegietan ere erreklamatu daitezkeen haiek) (Añon eta García Añon, 2004: 56-57). Esan genezake, eskubide sozial bat eskubide subjektibo gisa aitortzeko, "oinarrizko lau elementu zehaztu behar direla: eskubidearen titular diren subjektuak, prestazioa jaso ahal izateko bete beharreko eskakizunak, subjektuaren eskubide diren prestazio horien edukia, eta prestazio hori doakoa den edo ez" (Tornos, 2005: 381).

⁶ Honi dagokionez, iradokitzailea iruditzen zaigu Cortésen eta Antónen ekarpena, aipatuz *etxebizitza* batean (euskarri fisikoa) bizitzeak *etxe* bihurtzen duela (era jarraituan bizi izandako espazioa, zeinetan kidesasun- eta identitate-sentimendua garatzen baita) (Cortés eta Antón, 2007: 63).

Planteatutako galderari erantzuteko, lehenik eta behin aipatu behar da ondasuna baliatzeko eskubidea (esaterako, osasuna) prestazioa jasotzeko eskubide gisa operatibizatze edo positibizatze joera dagoela; hau da, dena delako premia asetzen lagundu dezakeen baliabide edo zerbitzu gisa (adibide berarekin jarraituz, asistentzia sanitarioa). Baina premia hori asetzeko hainbat faktore egon daitezke eta, beraz, ondasunaren babesak ez da inoiz erabatekoa edo perfektua⁷. Bestalde, eskubide sozialak baliatzeko aukera ematen duten prestazioek edo jarduerak, izaera erlazionala ez ezik, izaera teknikoa ere badute; hau da, dagoen ebidentzia onenaren gainean egiten dira edo egin beharko lirateke, eta ezagutza zehatza, eta hein batean behintzat, zientifikoa oinarri hartuta. Horrek esan nahi du zerbitzua ematen duenak (printzipioz profesionala) baduela, nolabait esatearren, ezagutzen eta erreminten sare konplexu bat, eta horien prozedurak eta eraginak hein batean dira estandarizagarriak eta kodifikagarriak eta, horrenbestez, eskubide sozialak hein batean dira galdagarriak⁸.

Eskubide sozialen galdagarritasunari buruz ari garenean, batez ere diogu botere eta administrazio publikoei eskatu dakizkiekeela eskubide sozialak (eta, azken aukera bezala, botere judizialari eta justizia-administrazioari), ulertuta botere eta administrazio horiek direla ongizate-zerbitzuei dagokienez inplikazioa edo interesa duen kolektibitate edo gizarte horren ordezkartza nagusia. Hain zuzen, doktrinaren joera horixe da: eskubide sozialak galdagarriak izan daitezela (eta azken aukera bezala, galdagarriak justiziaren aurrean). “Horri buruz, Robert Alexy-k (...) justiziabilitate-modalitateen eskemak egiteko kontuan hartu beharreko lau alderdi proposatzen ditu. Lehenik eta behin, ikusi behar da ea eskubideak konstituzio-kontrolaren mende dauden edo ez. Bigarrenik, ea arauak betebeharrak objektiboak ezartzen dituzten (Estatuak duen betebeharrak orokorra programa egokiak eskaintzeko) edota, aitzitik, eskubide

⁷ Ezaguna da, esaterako, Marc Lalonde-ren ekarpena; haren arabera, osasuna hein batean baino ez dago arreta sanitarioaren mende, horretan beste faktore batzuk ere sartzen baitira, hala nola giza biologia, bizi-estiloak eta ingurugiroa.

⁸ T.H. Marshall-ek berak, aurrez aipatutako artikuluan, dio “zerbitzu moduan ematen diren subsidioen ezaugarria da, gainera, herritarren eskubideak ezin direla zehatz-mehatz zehaztu” (Marshall, 1997: 329).

subjektiboak (norberak duen eskubidea indibidualki erreklamatzeko programa batean sartzea edo prestazio bat jasotzea). Hirugarrenik, eskubideak ea arau absolutu gisa formulatzen diren (banako bakoitzak duen aukera arauak ezartzen duena Estatuari erreklamatzeko) edo soilik printzipio gisa (juridikoki eta faktikoki posible den arte soilik aplikatzekoak direnak), eta azkenik, eskubide sozialen nozioak ea ongizate-maximoa edo ongizate-minimoa ezartzen duen. Aldagai horiek nahastuta, babes judizialaren forma ezberdinak sortzen dira. Horien artean, gehieneko muturra hau izango litzateke: eskubide sozialek konstituzio-babesa izatea, eskubide subjektiboak izatea, arau-egitura bat izatea eta erabateko eskubideak izatea, edo are hobeto, erabateko estalduradun eskubideak izatea. Beste muturrean legoke, berriz, gutxieneko justiziabilitate egoeran, eskubide sozialek konstituzio-babesik ez izatea, eskubide subjektiboak ez izatea, Estatuaren betebeharrak objektiboak islatzea, printzipio gisa egituratuak egotea, eta ongizate-maila minimoak ezartzea (ez maximoak)" (CEPAL; 2006: 16).

Eskubide sozialak eta unibertsalitatea

Eskubide sozialak, jakina, unibertsalak ere badira, eta izaera unibertsal hori babestu behar da hitzez zein praktikan hura gutxiesten duten ikuspegi edo planteamenduen aurrean. CEPALen arabera, "hautaketak edo fokalizazioak, behar bezala ulertuta, ez du talka egiten eskubide sozialen izaera unibertsalarekin, baizik eta guztiz kontrakoa: birbanaketa egiteko tresna dira, zer baliabide dauden kontuan hartuz, eskubide soziala gutxien gauzatzen zaien haiei eskubide sozialaren titulartasuna emateko. Baina horrek ezin du justifikatu Estatuak hartutako politikak soilik pobreei ematea zerbitzuak eta prestazioak, ondorio horrek zuzenean egiten baitu talka eskubide sozialen izaera unibertsalarekin eta, gainera, gizartearen erdiko geruzetako tarte handi bat babesik edo prestazioen finantziatorik gabe uzten baititu" (CEPAL, 2006: 20).

Egiazki, politika sozialetan unibertsalizazioaren eta fokalizazioaren artean betidanik egon den tentsioaz ari gara (ingelesezko termino ezagunak erabiliz, *mainstreaming* eta *targeting*). Dударik gabe, une eta egoera askotan

justifikatuta egon ohi da fokalizazioa eta biztanleria-segmentu jakin baten gainean jardutea (zenbait aldagaien arabera, hala nola sexua, adina, kokapena, loturak, gaitasunak, baliabideak...). Nolanahi ere, ongizatearen aldeko jardunaren historia da, gure ustez, esku-hartze fokalizatuen bidez pertsona ororentzat onuragarri diren premia unibertsalak eta prestazioak identifikatzearen historia. Bada, baita ere, denboran luzatzen diren esku-hartze fokalizatuen ondorio kaltegarriak identifikatzearen eta gainditzearen historia (esate baterako, estigmatizazioa, segregazioa, pasibotasuna edo mendekotasuna).

Beraz, ongizatearen aldeko jarduna, bere ibilbide eta garapen historikoan, zenbait jarduera-adar handitan eratu eta egituratu da, eta horietako bakoitza babestu beharrekoa den eta unibertsalki beharrezkoa den ondasun batekin dago lotuta. Eta ondasun horiek baliatzeko oztopoak zituzten (eta dituzten) pertsona horiek egiazki irisgarritasun unibertsala erreklamatu izan dute (eta erreklamatzeko jarraitzen dute gero eta gehiago), oztoporik ez sortzea eta, hala balegokio, oztopoak kentzea, horrela beste pertsona batzuek dauzkaten eskubide sozial berberak baliatu ahal izateko haiek ere. Eta sistemak (osasungintza, hezkuntza...), irisgarri egin diren eta are irisgarriago egiten jarraitzen duten heinean, lehen diskriminatzen eta baztertzen zituzten pertsonentzat ez ezik, kolektibitate guztiarentzat eta haren kide guztientzat ere badira onuragarri⁹.

Eskubide sozial berriak?

Nolanahi ere den, eskubide sozialak galdagarriak izateak eta botere publikoek haiek babestu behar izateak ezinbestean dakar berarekin botere publiko horiek eskubide sozialak bermatzea eta, horren ondorioz, politika publikoak eta sistema publikoak egitea, ongizatearen aldeko jardunaren parte diren adar

⁹ Gure ustez argigarria da bereizte, batetik, politika edo sistema bertikalak (horietako bakoitza premia unibertsal bati dago lotuta) eta, bestetik, zeharkako sistema edo politikak, zeinak sistema bertikalak baliatuz, aniztasun funtzionala, gizarteratzea, familia-bizitza, genero-berdintasuna eta bestelako gaiez arduratzen baitira. Are gehiago, kolektibo jakin baten alde egin litekeen esku-hartzea (esaterako ekintza positiboko politikak), gure ustez, sistema bertikalekiko zeharkako ekintza gisa ulertu beharko litzateke.

handi horietako bakoitzean. Horrek ez du esan nahi adar ezberdinetan *ongizate-mixa* baliokidea denik kasu jakin bakoitzean; hau da, esparru publikoaren, merkataritza-esparruaren, esparru solidarioaren eta komunitate-esparruaren arteko zereginen banaketa eta artikulazioa. Aldeak egon daitezke, halaber, kontuan hartzen badugu zer premia sozial sor ditzakeen, testuinguru bakoitzean, dagokion sistema publikoak eta zein premia konpontzen diren diru-sarrerak bermatzeko sistema edo politiko publikoaren bidez.

Bestalde, aipatutako esparru guztietan, garatutako jarduerak (izan sektore publikoak burutuak, zein merkataritza-sektoreak edota hirugarren sektoreak) laguntza informalekin batera jarduten dute, hau da, familia-, bizikidetzeta- eta komunitate-sareekin batera, eta beharrezkoa da bereiztea familien, lehen mailako taldeen eta komunitateen berezko logika, eta zerbitzu formalena. Behar-beharrezkoa da hori bereiztea esparru guztietako ongizate-politiketan; izan ere, gerta daiteke sare formaletatik eskaintzen diren laguntza horiek sare informalak babestea eta indartzea, baina gerta daiteke, halaber, eta oharkabea, sare horiek desartikulatzea eta ahultzea, eta ondorioz, ustez ongizatea lortzea nahi dugun pertsona horien bizi-kalitatean ondorio kaltegarriak eragitea.

Ongizatearen aldeko jarduna, bere adar ezberdinetan, laguntza informaletik banantzen den heinean bihurtzen da, hain zuzen, ongizatearen aldeko jardun, familietan eta komunitateetan ematen den babes naturalaz gain bestelako *baliokerantsi* bat ematen duela frogatzen duen heinean. Hori gertatzen da, ziur asko, teknifikatzen doan neurrian, oinarritzat ezagutza hartzen duen neurrian eta, hein handi batean behintzat bai, profesionalizatzen doan neurrian. Hori dela eta, nabarmendu behar dugu premia sozialen eta eskubide sozialen arloak duen dinamismoa, gizartean aldaketak gertatzen direlako eta, horien artean, ongizatearen aldeko jardunean bertan. Eskubideei dagokienez, Norberto Bobbiok eskubideen “espezifikazio-prozesua” aipatzen du, eta Gregorio Peces-Barbak, berriz, “zehaztapen-prozesua” (Vicente Giménez, 2006: 43). Hori dela eta, esan daiteke “eskubide berriak (...) daudela, eta espezifikazio-prozesuak

agerian uzten du eskubideen izaera historiko eta aldakorra" (Vicente Giménez, 2006: 44).

Erreferentziak

ALGUACIL, J. (2003): "Calidad de vida y participación ciudadana".
<http://www.uclm.es/bits/sumario/20.asp>.

AÑÓN, M.J. y GARCÍA AÑÓN, J. (2004): *Lecciones de derechos sociales*.
Valencia, Tirant lo Blanch.

CCE (Comisión de las Comunidades Europeas) (2004): *Libro blanco de los servicios de interés general*. Bruselas.

CEPAL (Comisión Económica para América Latina y el Caribe) (2006): *La protección social de cara al futuro: acceso, financiamiento y solidaridad*.
Montevideo.

CONSEJO DE EUROPA (1961): *Carta Social Europea*. Estrasburgo.

CORTÉS, L. y ANTÓN, F. (2007): "La exclusión residencial" en *Gitanos. Pensamiento y Cultura*, núm. 40-41, junio-octubre 2007, 62-69.

CORTINA, A. (d.g.): "Ética, ciudadanía y modernidad".
[http://www.usma.ac.pa/web/DI/images/Eticos/Conferencia%20\(%C3%89tica,%20Ciudadan%C3%ADa%20y%20Modernidad.pdf](http://www.usma.ac.pa/web/DI/images/Eticos/Conferencia%20(%C3%89tica,%20Ciudadan%C3%ADa%20y%20Modernidad.pdf).

COUNCIL OF EUROPE (1961): *European Social Charter*. Strasbourg.

DONATI, P. (1999): *La ciudadanía societaria*. Granada, Universidad de Granada.

DOYAL, L. y GOUGH, I. (1994): *Teoría de las necesidades humanas*.
Barcelona, ICARIA/FUHEM.

ESPAÑA (1978): Constitución Española. Madrid.

ESPAÑA: Ley 39/2006 de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia.

ESPING-ANDERSEN, G. (2007): "Prioridades del Estado de Bienestar para la Europa del siglo XXI" en *Ekonomi Gerizan* núm. 14, 90-111.

FANTOVA, F. (2008): *Sistemas públicos de servicios sociales. Nuevos derechos, nuevas respuestas*. Bilbao, Universidad de Deusto.

GÓMEZ ISA, F. (2005): "Los derechos humanos en un mundo global" (mimeo).

- HERRERA, M. (1998): *El tercer sector en los sistemas de bienestar*. Valencia, Tirant lo Blanch.
- IDHPA (Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe) (2007): *Los derechos humanos en el País Vasco*. Bilbao, Universidad de Deusto.
- JOLONCH, A. (2000): "Dels marges al cor de la societat: contradiccions i reptes en la lluita contra la exclusió social" en *Idees*, 8, octubre-diciembre.
- MARSHALL, T.H. (1997): "Ciudadanía y clase social" en *Reis*, 79/97, 297-344.
- MAX-NEEF, M.A. (1998): *Desarrollo a escala humana. Conceptos, aplicaciones y algunas reflexiones*. Barcelona, Icaria.
- MORENO, L. (2000): *La Europa asocial*. Barcelona, Península.
- PISARELLO, G. (2007): *Los derechos sociales y sus garantías. Elementos para una reconstrucción*. Madrid, Trotta.
- RODRÍGUEZ CABRERO, G. (2007): "Financiación de los servicios sociales con especial referencia a la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia. Situación y propuestas de mejora": CASADO, D. y FANTOVA, F. (koord.): *Perfeccionamiento de los servicios sociales en España. Informe con ocasión de la Ley sobre autonomía y dependencia*. Madrid, Cáritas Española, 355-371.
- SEN, A. (1992): *Nuevo examen de la desigualdad*. Madrid, Alianza Editorial.
- SOTELO, H. (2005a): "EAE-ko gizarte zerbitzuen arau esparrua eta berrantolatzeke proposamena": CASADO eta beste batzuk: *Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egoera eta etorkizunerako ikuspegia*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 67-116.
- SOTELO, H. (2005b): "Europako zenbait herrialdeetako gizarte zerbitzuen eremuan dauden joera nagusiak" CASADO eta beste batzuk: *Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egoera eta etorkizunerako ikuspegia*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 119-141.
- TORNOS, J. (2005): "Efectividad de los derechos y exigibilidad de los servicios sociales" *Documentación Administrativa*, 271-272, enero-agosto, 371-388.
- UNIÓN EUROPEA (2007): *Carta de los derechos fundamentales de la Unión Europea*. <http://eur->

lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2007:303:0001:0016:ES:PDF.

VICENTE GIMÉNEZ, T. (2006): *La exigibilidad de los derechos sociales*. Valencia, Tirant lo Blanch.

ZARAUZ, J. (2007): *La incidencia del padrón en el ejercicio de los derechos de las personas inmigrantes en situación irregular*. Vitoria-Gasteiz, Ararteko.